

Matematikak beste modu batera ikasteko webgunea

Matematikak askorentzat aspergarriak eta ulertzen zailak dira. Zuretzat ere bai? Baietz sekuentzia honetan zehar iritzia aldatu! Horretarako, ariketa hauek proposatzen dizkizugu:


- Gaian sartzeko, zure eskarmentutik abiatu eta galdera irekiei erantzun.
- Erreportajea entzun ondoren, galderen erantzun zuzena aukeratu.
- Gaiari lotutako hiztegia: esaldiak osatu.
- Azken ataza: zure iritzia emateko mezu elektronikoa idatzi.



Zein da zure esperientzia?

Sekuentzia honetan matematikak interesgarri bihurtzeko Leire Aranek sortu duen www.matematiketan.eus webgunea izango da hizpide. Baina lehendabizi gaiari buruz zure eskarmentua eta iritzia trukatu inguruko norbaitekin galdera hauetan oinarrituta.

1. Txikitan eskolatik zein ikasgai gustatzen zitzaizun gehien? Eta gutxien? Zergatik?
2. Zure eskola-garaiko esperientzia kontuan hartuta, nola definituko zenituzke matematikak? Zein oroitzapen dituzu?
 - Ulertzeko oso zailak egiten zitzaizkidan, eta gainera, irakaslea oso zorrotza zen.
 - Interesgarriak iruditzen zitzaizkidan, eta irakasleak adibide praktikoak jartzen zizkigun, gainera.
 - Aspergarriak egiten zitzaizkidan. Beti biderketak, kenketak eta horrelakoak egiten.
 - * Besterik?
3. Hurrengo ariketan matematikei ikuspegi ludiko bat ematen dion webgune baten berri ezagutuko duzu. Webgune horretan zer eduki egongo direla uste duzu? (Matematikak lantzeko jolasak, irakaslek eskolan egiteko ariketak, gurasoentzako aholkuak....)



Galderen erantzun zuzena aukeratu



Entzun Leire Aranak zer dioten sortu duen www.matematiketan.eus webgunerari buruz.

Elkarrizketa osoa entzun ondoren, galdera hauen erantzun zuzena aukeratuko duzu.

Lehendabizi, irakurri galderak eta erantzun-aukerak.

Haurrek matematikei buruz eman dituzten erantzunetan, zer ez dute aipatu?

- Buruketak konplikatuak egiten zaizkiela.
- Batzuetan ez dituela ulertzen, eta asko pentsatu behar izaten duela.
- Irakasleak gaizki esplikatzen dituela.

Zertarako sortu du Leire Aranak webgune hau?

- Matematikak erraz ulertzeko.
- Eskoletan matematikak hobeto esplikatzeko.
- Irakasleei matematikak interesgarri bihurtzeko.

Gurasoek bete behar duten rolari buruz zer esan du Leirek?

- Haurrak matematikekin ari direnean goxo tratatu behar dituztela.
- Haurrei eskolako lanak beren kasa egiten utzi behar zaiela.
- Etxean, haurrek inplikatuak daudela sumatu behar dutela.

Matematikak nola landu behar dira Leireren ustez?

- Modu ludikoan, eta haurren bizipenetatik hurbil.
- Haurrak berak eskatzen duenean landuz.
- Ariketak behin eta berriz eginez, eta gauzak manipulaturik.

Entzun duzunaren arabera, zein esaldik laburtzen du ondoen web orrialde hau?

- Gurasoei dago zuzenduta, eta hainbat ariketa eta kontzeptu azaltzen dira. Matematikak interesgarri bihurtzeko sortu zuen Leire Aranak, eta bertan gurasoentzako aholkuak daude.
- Gurasoei eta irakasleei zuzendua dago, eta matematikak erraz ulertzeko sortu da. Bertan, besteak beste, jolas-proposamenak aurki daitezke, eta matematikak modu ludikoan lantzen dira, haurren bizipenetatik hurbil.
- Irakasleei zuzenduta dago, eta bertan zenbait ariketa interesgarri aurkezten dira, batez ere eskolan egitekoak. Matematikak eskoletan modu argian azaltzeko sortu zuen Leire Aranak.

Hiztegia landu: osatu esaldiak

Orain, audioan agertu diren zenbait aditz eta esapide landuko dituzu. Esaldi batzuk transkripzioetik hartuak dira, eta beste zenbait moldatuak. Osatu esaldiak erantzun egokia aukeratuta.

Gako / ikaste-prozesu / oso eskura / bizipen / beraien kasa / isolatuta / sumatu / kale egiten

1. Haur batek dioenez gurasoek bakean utzi behar dituzte eta beraiek _____ egin behar dituzte matematika-ariketak.
2. Haur batzuek eragiketen atala erraz egiten dute, baina horien aplikazioan _____ dute askotan.
3. Txiki-txikitatik matematikak erraz ulertzeko _____ garrantzitsu bat etxean aurkitzen duten giroa da.
4. Eta etxean giro egokia egoteko, haurrek gurasoen inplikazioa _____ behar dute.
5. Leirek ez du uste gurasoek _____ geratu behar dutenik haurraren _____ horretatik, alderantziz, prozesu horren partaide izan behar dute.
6. Matematikak interesgarri egiteko, Leireren ustez, haurraren errealitate eta _____ horietara hurbildu behar dira.
7. Zorionez, gaur egun interneterako sarbidea denok daukagu _____, erraza baita edozeinentzat webguneetan sartu eta ikusmiran ibiltzea.

Idatzi mezu elektronikoa iritzia emateko

Duela gutxi ezagutu duzu www.matematiketan.eus webgunea. Idatziozu Leireri mezu elektronikoa webgunearengatik zure iritzia azaltzeko. Lehendabizi, irakurri beheko gidoi-proposamena eta mezu-eredua.

GIDOI-PROPOSAMENA


- Zure buruaren aurkezpena, oso labur.
- Nola ezagutu duzu webgunea?
- Zer gustatzen zaizu/ez zaizu gehien/gutxien?
- Zer gehituko zenuke? Egin bururatzen zaizkizun proposamenak



Kaixo Imanol!

Ni Amaia naiz, eta aspaldian zure webgunearen oso zale bihurtu naizela esan behar dizut. Duela hilabete ezagutu nuen kasualitatez, interneten nabigatzen ari nintzela, eta ikaragarri gustatu zitzaidan, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, zure webguneak etxe-eskaintza interesgarriak dauzka, eta gainera, ematen dituzun informazioa eta argibideak benetan praktikoak iruditu zaizkit. Horregatik, ziur naiz etheen trukearekin interesatuak dauden pertsona askori ondo etorriko zaiela honelako erreferentzia bat izatea. Bazen garaia behingoz etheen trukeari buruzko webgune bat izateko, eta gainera, euskara hutsean. Hori bai luxua!

Beraz, izugarri eskertzen dizut webgune interesgarri hau martxan jartzea. Jarraitu horrela, ondo ari zara eta!



Zuzenketa-orria

Galderen erantzun zuzena aukeratu

1. Zertarako sortu du Leire Aranak webgune hau?

✓ Matematikak erraz ulertzeko.

2. Gurasoek bete behar duten rolari buruz zer esan du Leirek?

✓ Etxean, hurrek inplikatuak daudela sumatu behar dutela.

3. Matematikak nola landu behar dira Leireren ustez?

✓ Modu ludikoan, eta hurren bizipenetatik hurbil.

4. Entzun duzunaren arabera, zein esaldik laburtzen du ondoen web orrialde hau?

✓ Gurasoei eta irakasleei zuzendua dago, eta matematikak erraz ulertzeko sortu da. Bertan, besteak beste, jolas-proposamenak aurki daitezke, eta matematikak modu ludikoan lantzen dira, hurren bizipenetatik hurbil.

5. Hurrek matematikei buruz eman dituzten erantzunetan, zer ez dute aipatu?

✓ Irakasleak gaizki esplikatzen dituela.

Hiztegia landu: osatu esaldiak

- Haur batek dioenez gurasoek bakean utzi behar dituzte eta beraiek (beraien kasa) egin behar dituzte matematika-ariketak.
- Haur batzuek eragiketen atala erraz egiten dute, baina horien aplikazioan (kale egiten) dute askotan.
- Txiki-txikitatik matematikak erraz ulertzeko (gako) garrantzitsu bat etxean aurkitzen duten giroa da.
- Eta etxean giro egokia egoteko, hurrek gurasoen inplikazioa (sumatu) behar dute.
- Leirek ez du uste gurasoek (isolatuta) geratu behar dutenik hurraren (ikaste-prozesu) horretatik, alderantziz, prozesu horren partaide izan behar dute.
- Matematikak interesgarri egiteko, Leireren ustez, hurraren errealitate eta (bizipen) horietara hurbildu behar dira.
- Zorionez, gaur egun interneterako sarbidea denok daukagu (oso eskura), erraza baita edozeinentzat webguneetan sartu eta ikusmiran ibiltzea.

Transkripzioa

Galderen erantzun zuzena aukeratu

ESATARIA MUTILA.- Bueno hementxe gaude Euskadi Irratiko Faktorian, e zenbakiak, matematikak, ikasle askoren buruhauste izaten dira. Batzuentzat e buruhauste, baina beste batzuentzat gustuko gaia. Entzun.

ESATARIA NESKA.- Zenbat urte dituzue?

HAURRA 1.- Hamaika.

ESATARIA NESKA.- Gustuko dituzue matematikak?

HAURRA 1.- E ... bueno, ba ariketa(ren) arabera ba, e adibidez problemak e, ez badituzu ulertzen ba ez dira ...

HAURRA 2 .- Ba niri zatiketak eta biderketak errazak egiten zaizkit, baina problemak eta konplikatuagoak. Ze ba, batzuetan ez ditut ulertzen eta pentsatu behar dut asko eta liatzen naiz.

HAURRA 3.- E gure andereñoak esan digu e gurasoak pixka bat uzteko bakean eta orduan saiatzen gara gu bakarrik egiten.

HAURRA 4.- Zortzi.

ESATARIA NESKA.- Gustatzen zaizkizue matematikak?

HAURRA 4. - Bai. E ze ba asko ikasten duzulako. Gehiketak, kenketak, biderketak.

HAURRA 5 . Bai. E gehiketak egitea, gauzak ... dakagu (daukagu) ikastolan, e? zenbakien zera bat eta horrekin ikasten ditugu biderketak.

ESATARIA NESKA Zenbat urte dituzu?

HAURRA 5 . Bederatzi.

ESATARIA MUTILA . Bueno ba entzun duzue, batzuek gustuko, beste batzuek ez hainbeste, matematiken logika nola azaldu, hori ere ez da erraza izaten irakasle eta gurasoentzat eta hor entzun duzue, ume batek esan duena, e irakasleek esaten dietela gurasoek bakean utzi behar dituztela eta beraiek beraien kasa egin behar dituztela. Bueno Leire Arana, irakaslea da eta gurasoa da eta matematikak erraz ulertzeko webgunea sortu du : “matematiketan.eus” izeneko web orria, errepikatu egingo dugu: “matematiketan.eus”. Leire Arana, Leire kaixo egunon.

LEIRE ARANA. - Kaixo, egunon.

ESATARIA MUTILA. - Bueno entzun duzu inkestan umeek zer esaten duten, batzuei gustatzen zaie, beste batzuei ez, batek hor aipatzen du e bueno, e zera e batuketak eta zatiketak eta egitea gustatzen zaiola, baina gero problemekin izaten duela arazoa, ezta? Ulertzea kosta egiten zaiola.

LEIRE ARANA . Hori da gakoetako bat. Jo asteko ze jatorrak, jejeje.

ESATARIA MUTILA . Oso.

LEIRE ARANA . Ze naturalak diren.

ESATARIA MUTILA . Oso sinpatikoak umeak.

LEIRE ARANA.- Eta gero ba “tontamentian” bizpahiru klabe oso inportante eman dituzte e?. Ba bata da eragiketetatik e buruketetarako pausua. Batzuek (batzuentzat) eragiketen atal hori, e oso mekanizistak e direnentzako (direnentzat) goxoa da, ti ta ti ta egin eta ondo ateratzen bazaizkie batez ere, goxo bizi dituzte baina gero aplikazioan kale egiten da askotan.

ESATARIA MUTILA. - Mmm. Eta beste klabeetako bat gurasoek zer egin behar duten.

LEIRE ARANA. - Eta gurasoen papera jo! Niri ikastolako eta ikasketetako gaitan gurasoak inplikaturik egotea eta giro hori etxean sumatzea, oso inportante iruditzen zait. Ez dut uste gurasoak aislatuta edo isolatuta geratu behar direnik prozesu horietatik.

ESATARIA MUTILA. - Ja. Zergatik sortu duzu “matematiketan.eus”? Ze helbururekin Leire?

LEIRE ARANA.- Ba beharrak bultzatuta edo pixka bat deskubritu dut matematikan ikuspegi hau eta bat-batean niretzako (niretzat) izan da, jo hau hemendik, matematikan irakaskuntza hemendik joan behar da. Matematikan irakaskuntza joan behar da jolastetik e, e ... bizipenetatik hurbiltzetik, modu manipulatu baten hurbiltzetik kontzeptuak, e umearen momentuan ezagutzetik, e zer aurkeztu eta zer ez aurkeztu jakiteko, ... hortik da nire planteamendua, ez? Eta nik hori ikasi egin dut eta eduki dut behar bat hola eman eta zabaltze zuzena deitzen diot nik.

ESATARIA MUTILA. -Aha, Bai. Bueno “matematiketan.eus”., e esan orduko jendea hasiko da saltseatzen, ze gaur egun interneteko sarbideak denek daukagu oso eskura,

LEIRE ARANA.- Bai.

ESATARIA MUTILA.- ... e sartu aurretik, jendea sartu aurretik, aurreratu izeaiezu zer aurkituko dute.

LEIRE ARANA. Bueno proposamen konkretu bat, e hau edo bestea lantzeko, jolas honekin edo beste jolas honekin. Asko dira jolasen proposamenak.

ESATARIA MUTILA.- Mmm.

LEIRE ARANA.- E ikusiko dituzue ba biderketa taulak e errepasatu beharrean e banan-banan eta jarri eta parez pare jarrita

ESATARIA MUTILA . Bai.

LEIRE ARANA.- ... ba hori lantzeko jolas bat, edo orduaren zentzua bereganatzen joateko baita ere erlojuekin egiteko jolas bat, eta bueno horrelako proposamenak dira.

ESATARIA MUTILA.- ... e sartu aurretik, jendea sartu aurretik, aurreratu iezaiezu zer aurkituko dute.

LEIRE ARANA. Bueno proposamen konkretu bat, e hau edo bestea lantzeko, jolas honekin edo beste jolas honekin. Asko dira jolasen proposamenak.

ESATARIA MUTILA.- Mmm.

LEIRE ARANA.- E ikusiko dituzue ba biderketa taulak e erreparasatu beharrea e banan-banan eta jarri eta parez pare jarrita

ESATARIA MUTILA . Bai.

LEIRE ARANA.- ... ba hori lantzeko jolas bat, edo orduaren zentzua bereganatzen joateko baita ere erlojuekin egiteko jolas bat, eta bueno horrelako proposamenak dira.